

# HITZAURREA

Hemen gaituzue beste urte batez ere zuekin, Pazkoatako jaietako hitzordura garaiz ailegatu da LEZO aldizkari mardul hau. Zenbaki hau ordean, hamabi urteko aldi luze eta oparo bati bukaera emango diona da. 1988ko Santakruzetan Kultura Batzordearen babesean abiatu zen egitasmoak honekintxe du beraz bukaera. Hogei zenbaki joan dira geroztik, denak ere mardul eta mamitsuak, herritarren kezka eta sorkuntza nahiaren ispilu garbi. Ehundaka lan eta dozenaka idazle edo izkiriatazaille azalarazi dituen "plazatxo" izan da aldizkari hau. Hogei zenbaki atzera begiratu bat egiteko moduko kopurua eta ondarea iruditu zaigu, eta orain erredakzio taldean gaudenok hamabi urteko aldi honi bukaera ematea erabaki dugu. Egitasmoak berak berrazterketa baten premia badu, izan ere, aldi honetan herriko aldizkarigintzak urrats sendoak eman ditu eta gure iritziz bakoitzak duen betebeharra eta papera berkokatu behar dira.

Ezin jakin, ordean, hausnarketa horretatik zer aterako den, ezin jakin aldizkari berririk edo lehengoa berriturik edo deus sortuko den, hala ere, jakin ezazue lezoar maiteok, gogobetekoa izan dela aldizkari honek egin duen ibilbidea. Erabaki hau herriko aldizkarigintzaren eta kulturaren onerako hartu dugula sinetsita gaude horratik. Era guzitara ere, dasta ezazue LEZO 20 honek dakarren karga oparoa. Izan ongi! Ayo.

**Lezo Aldizkariaren Erredakzio Batzordea**